

AZPEITIA / Gaur zabalduko ditu ateak udal liburutegiak

Enparan Dorretxean kokatuta dagoen Udal Liburutegia gaur ireki da oporretako etenaldiaren ondoren. Hala ere, ordutegia udakoa izaten jarraituko du. Hau da, goizeko zortzi eta erdietatik eguerdiko ordu bietara. Ordutegi berezi hau irailaren 5a arte mantenduko da. Behin irailean, urteko ohiko ordutegia berreskuratuko du.

Udan ere, zerbitzu guztiak eskaintzen ditu liburutegiak: kontsulta liburuak, fotokopiak, ikasgela. Baina bertako arduradunek diotenez, jende gutxi ibiltzen da opor garaian. "Gehienetan ohiko bezeroak, prentsa irakurtzera etortzen direnak eta bereziki iraileko azterketak prestatu behar dituzten ikasleak etortzen dira abuztuan liburutegira". Hala ere, aurten ikasleak lan "txukuna" egin dutela azpimarratu du, izan ere uztailean ez dira ikasle gehiegi ibili, beraz, irailean ere ez dituzte asko espero. Eguraldiak ere zer esana izaten du liburutegian elkartzen diren lagunen kopuruan. Eguraldi onarekin jendea ez da hurbiltzen, baina euriarekin batera etxeko txikienek gurasoekin batera disfrutatzen dute liburutegiaz. Aurreko urtean egindako obra eta moldaketen ondoren, leku txukun, erakargarri eta atsegin bilakatu da udal liburutegia.

Bertako arduradunek diotenez, gero eta bezero gehiago dira, "batipat azkenaldian", eta horiei zerbitzu ahalik eta hoberena eskaintzeko berrikuntzak egiten jarraituko dute. Wifi-ak erabilgarri jarraituko du eta datorren ikasturterako ofimatika eta interneteko aukera eskainiko duten ordenagailuak ere jarriko dituzte.